

FUNTZIONAMENDU ARAUAK- Ospitalizazioko Unitatea
Kirurgia Orokorreko Zerbitzua (Kolon eta ondesteko atala)
Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA
MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Ospitaleratutako pazienteak zaren, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitatetik borondatez irteketan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA


- Interbentzioaren ondoren: zirujauaren informazioa emango dizu 2. solairuko operazio-geletako sarreran.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU).

MEDIKUAREN IKUSTALDIA


- Egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 12:00etara gutxi gorabehera.
- Bisita hasieran megafoniaz pasako zaizue abisua laguntzaile guztiek irten daitezen bat izan ezik; honek ere gelatik irten beharko du mediku taldea sartzen denean
- Bisita bitartean medikuak zure osasun-egoeraren berri emango dizu.

FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

- Astelehenetik ostiralera 12.00etan, unitateko sarreran dagoen ataleko medikuaren bulegoan.

OTORDUAK


9:30ean Gosaria
 13:30ean Bazkaria
 17:30ean Merienda
 20:30ean Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.**
 Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitzez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).


TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraugintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.


KAFETEGIA Ordutegia: 7:30etik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen


OSPITALEKO ALTA. Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri.

Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.


ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA

Harremanetarako Telefonoa: 618 75 14 15.

PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera).